

---

## HERNANI. EMAKUMEEN ETXEA

---

-2016-10-26. ACTA DE LA SESIÓN ABIERTA-



### **WORLD CAFE: KORAPILOAK ASKATZEN**

#### **BILERAREN XEHETASUNAK / DETALLES DE LA REUNIÓN:**

- *Data/ Fecha: 2016-10-26*
- *Lekua / Lugar: Biteri Kultur Etxea*
- *Hasiera ordua/ Hora de inicio: 18:00*
- *Amaiera ordua/ Hora de finalización: 20:00*

- ❖ *Bertaratuak / Participantes: 25 herritar*
- ❖ *Udal teknikariak / Técnicas del Ayuntamiento: Maialen Apezetxea eta Irantzu Jauregi*
- ❖ *Dinamizatzaileak / Dinamizadoras: Susana Martinez, Maitane Barrenetxea eta Mainer Alvarez.*

## 1. AURKEZPENA / PRESENTACIÓN

Irantzu Jauregi Hernaniko Berdintasun teknikariak sarrera eman dio saioari.

Hernaniko Emakumeen Etxearen proiektua definitzen jarraitzeko bigarren saio irekia da gaurkoa. Lan faseen irudian ikus daitekeen moduan, uda aurretik "Erein" fasea egin genuen, bertan prozesuaren diseinua eta komunikazio plana adostu ziren, baita prozesu honen gidaritzaz arduratuko den herritar taldea -Taldea Eragilea- sortu ere.

Ondoren, "Ernatu" bigarren fasean, Jardunaldiak antolatu genituen, Emakumeen Etxearen gaia sozializatu eta testuinguruan jartzeko helburuarekin. Hirugarren fasea, Emakumeen Etxearen ezaugarri eta helburuez hausnartzeko prestatua izan da, eta bertan, Ametsen tailerra izeneko beste saioa antolatu zen. Ateratako gaietan gehiago sakontzeko *World café* izeneko saioa da gaurko hau: aurreko asteko edukietan ikusitako korapiloak askatzen hasiko gara.

Aurkezpenarekin amaitzeko Ametsen tailerreko edukien laburpena aurkeztu da.

*Irantzu Jauregi, técnica de Igualdad del Ayuntamiento, ha comenzado la reunión.*

*Esta es la segunda reunión para seguir definiendo la Casa de Mujeres de Hernani. Como se puede ver en la imagen de fases del proceso, antes de verano realizamos la fase "Erein", donde diseñamos tanto del proceso como el plan comunicativo. Además, creamos el Grupo Motor encargado de la dirección del proceso.*

*Después llegó la fase "Ernatu", donde organizamos las Jornadas con el objetivo de socializar el tema de las Casas de las Mujeres. La tercera etapa de este proceso ha sido diseñada para reflexionar conjuntamente sobre los objetivos y características, en la cual la primera reunión fue el taller Soñemos Juntas. Esta segunda reunión de hoy ha sido preparada para profundizar en aquellos contenidos, para empezar a desatar algunos nudos.*

*Se ha finalizado la presentación resumiendo los contenidos de la primera reunión.*

### ¿QUÉ ES?

- Espacio de referencia para impulsar la **transformación feminista**
- Un **recurso**, el trabajo que se realice **incidirá en todo el pueblo**
- Espacio público, **abierto**
- Para nosotras. ¿Quiénes somos nosotras? Será un **espacio diverso libre**.

- o Edad
- o Idioma
- o Clase – situación socioeconómica
- o Identidad
- o Ideología
- o Identidad de género
- o Origen
- o Experiencia de vida
- o Cultura
- o "Cuerpo diversos" – diversidad funcional; capacidades diversas.
- o Religión
- o Tiempos y ritmos

Personas de diversa.....

*(La diversidad es una fortaleza, pero al mismo tiempo su gestión es un gran reto, y habrá que poner recursos para su adecuada gestión)*

- Para **mujeres y hombres**, para que los hombres también sean parte de esa transformación.
- **Internacionalista e intercultural**
- Espacio donde las relaciones se basan en el **respeto**, donde **no será juzgada**; donde se respetarán los **silencios**, también los **tiempos** de cada una. Lugar para sentirnos libres.
- **Alegre**, divertido, cómodo, aliciente

¿PARA QUÉ?

- **Transformación**
  - o Un espacio para la lucha (trabajo)
  - o Reivindicación
- **Empoderar**, para impulsar procesos de empoderamiento
  - o Características necesarias para el empoderamiento: libertad, diversidad, feminismos, placer, cuidados, capacidades, creatividad e identidad
  - o Empoderarse es un **proceso**, activo y político
  - o Para **construirlo colectivamente**. Aunque el punto de partida sea individual, el proceso de aprendizaje es colectivo.
  - o Espacio adecuado para el **desarrollo personal**. (autoconocimiento o conocimiento de una misma)
- **Crear alianzas y redes**, para encontrarnos
  - o **Compartir** – empatizar
  - o **Apoyo mutuo**: protección, solidaridad, soluciones
  - o **Aprender** juntas y unas de las otras, poniendo en valor ese diverso "nosotras", y aprender de ello.
  - o **Crear**
- Espacio mío/nuestro/de todas: acogedor y apacible
- **Reflexión**: para tomar conciencia, trabajar las relaciones de género, e influir en sus consecuencias (trabajo individual y colectivo)
- **Debate**
- **Formación**
- **Desarrollar propuestas**
- **Impulsar relaciones sociales más justas** / paritarias / igualitarias:
  - o Lugar donde se trabajarán las relaciones de poder, visibilizarlos y trabajar/gestionar las tensiones
- **Visibilizar** las mujeres
- **Vivir y Sentir**

Hizkuntza irizpideak aipatu eta irudiak hartzeko baimena eskatu ostean, gaurko saioaren egitura azaldu da:

*Después de haber explicado los criterios a utilizar sobre el idioma y el permiso para tomar imágenes, se ha explicado el orden del día:*

- Aurkezpena / *Presentación*
- Aurkezpen dinamika / *Dinámica de presentación*
- *World Café*: korapiloak askatzen / *World Café*: desatando nudos
- Balorazioa eta hurrengo urratsak / *Valoración y próximos pasos*

## 2. AURKEZPEN DINAMIKA / DINÁMICA DE PRESENTACIÓN



Bertaratutako guztien artean aurkezpen dinamika bat sustatu da, denak elkartu, eskuetatik hartu eta gero sortutako korapiloak askatzeko eskatuz.

*La dinámica ha consistido en juntarse, cogerse de las manos y desatar el nudo creado entre todas.*

### 3. WORLD KAFEA / WORLD CAFÉ

*World Café* dinamikaren bitartez, Emakumeen Etxearen ezaugarri, helburu eta izena bezalako xehetasunetan sakondu nahi izan da. Beti ere ekarpen berrietarako tartea utzi delarik.

Gaien inguruan hausnartzeko, lau talde sortu dira 5-7 pertsonetakoak. Talde hauek 15-20 minutu izan dituzte galdera bakoitzari erantzuteko. Denbora amaitzean, talde bakoitzeko 3 partaide beste mahai batera mugitu dira. Lau galderak erantzun direnean, dinamizatzaileek galdera bakoitzaren ondorio orokorrak azaldu dituzte, talde guztien erantzunak aurretik jasoz. Erantzunak entzun bitartean partaideek ekarpen berriak egin dituzte.

Hurrengo orrietan paperetan jasotako eduki guztiak ikus daitezke:

*El objetivo del World Café ha sido profundizar en objetivos, características y el nombre.*

*El grupo ha sido dividido en grupos pequeños de entre 5-7 participantes. Se ha contado con 15-20 minutos para responder a cada pregunta. Al terminar el tiempo, 3 participantes de cada grupo se han movido de mesa. Al responder las cuatro preguntas, las dinamizadoras han realizado un síntesis de cada apartado en el plenario.*

*Los cuadros recogen los contenidos de cada grupo:*



## ZER DA?

*ZER DA galderari erantzunez jasotako edukietan zentratuko gara lehendabizi. Aurreko saio irekian ateratako ideiak ondo jasota daudela uste duzue? Zer osatuko zenukete? Ezaugarriren bat edo punturen bat falta dela uste duzue? Eduki hauen artean, gizonen parte hartzearen inguruko ekarpen bat jasota dago, gehiago zehaztera iritsi gaitzke? Nola parte har dezakete gizonek?*

*¿Pensáis que están bien recogidos los contenidos de la sesión anterior? ¿Algo qué añadir? ¿Algo que falta? Entre los contenidos trabajados en la anterior sesión se recoge el tema en cuanto a la participación de los hombres. ¿Se podría añadir o concretar algo más en cuanto al tema? ¿Cómo podrías participar los hombres?*

### 1.TALDEA

- Aniztasunean, "sexu eta genero identitateak" gehitu / *Diversidad, añadir "identidades de sexo y género"*
- "Isiltasunak", zeri egiten dio erreferentzia? Bakoitzak bere erara ulertzen du: / *"Silencios", ¿a qué hace referencia? Cada uno lo entiende diferente:*
  - o Posible da iritzirik ez izatea / *es posible no tener opinión*
  - o Isilik egotea ere parte hartzeko modua izan daiteke / *Puede ser una manera de participación*
  - o *Es importante siempre dar opción a participar, para que quedarse callada sea realmente una opción, y no algo impuesto.*
  - o Kontuz / adi ibili, isiltasuna ez dadin izan ezkutuko zapalketek eragindakoa / *Tener en cuenta, para que el silencio no sea para encubrir relaciones de poder.*
- Gizonen parte hartzea. Ez dakigu nolakoa izan behar duen / *participación de hombres. No sabemos cómo debe ser.*
  - o Ekintza puntualak, gizonetzkoen zuzenduak: aitak eta zaintza, adibidez / *Actividades puntuales dirigidos a hombres: padres y cuidados, por ejemplo.*
  - o Ekintza gehienak, emakumeentzat soilik / *La mayoría de actividades, dirigidos a mujeres.*
  - o Funtzionamenduan, emakumeek ardura nagusia / *En el funcionamiento, responsabilidad mayoritaria de mujeres.*
- Bidean ikasi beharko dugu nola egin: gizonek emakumeen lidergoa jarraitzen eta euskarritzen ikas dezaten / *Aprenderemos en el camino: los hombres tendrán que aprender a seguir y sostener el liderazgo de las mujeres.*

### 2.TALDEA

- Planteatutako ideiekin ados gaude / *Estamos de acuerdo con las ideas propuestas*
  - Gizonen parte hartzeari dagokionez, ikuspuntu ezberdinak izan ditugu: / *En cuanto a la participación de hombres, tenemos visiones diferentes:*
    - o Parte hartze hutsa izan dezatela / *Que sea sólo para la participación*
    - o Erabakiak hartzeko aukera izatea gurekin batera / *Que estén en los espacios de decisión junto a nosotras*
- "Botere harremanak identifikatu eta adi egon behar dugu, ahal den moduan saihesteko (generoa, adina, arraza, jatorria, etab.) / Tenemos que identificar y tener en cuenta las relaciones de poder, para poder evitarlos en la medida de lo posible (género, edad, raza, origen, etc.)"*

### 3.TALDEA

- Elkarbizitza faltan bota da. Baita elkartasuna ere. Convivencia / *Se echa de menos la convivencia. También la solidaridad.*
- Garrantzitsuena idatzia dago / *Lo más importante está recogido.*
- Gizonak ongietorriak izango dira, emakumeen protagonismoa zapaltzen ez bada. Genero gaietan parte hartzea, maskulinitatea lantzea. Erabakitzeko eremuetan 2.mailako sujetuak izatea, iritzia emateko aukera ematea, baina erabakiak emakumeak hartzea. Talde naitza izatea (emakume – gizon, etorkin – autoktono...)- Emakumeak liderrak izatea guztiaren gaineratik. Gerturatzen diren gizonen etxearen helburuak garbi jakitea. Errespetua bermatzeko arauak jartzea / *Los hombres son bienvenidos, siempre que no se obstaculice el protagonismo de las mujeres. Participar en temas de género, trabajar la masculinidad. En espacios de decisión, su participación en 2º grado, que puedan dar su opinión, pero la decisión en manos de mujeres. Que sea un grupo diverso (mujer-hombre, migrante-autóctono...). El liderazgo será de las mujeres. Que los hombres que se acerquen conozcan los objetivos de la casa. Poner normas para garantizar el respeto.*

### 4.TALDEA

- Etxeak berak (espazio fisiko bezala) ahalduntze espazioa izan behar du. Baina, kalea hartu behar dugu eta hortaz, gainera, eskaintzea egin gizarteari eraldaketarako bidean. Hernani gune feminista bilakatuaz. Getorik ez. Espazio publikoa hartu. Dinamikoa. / *La casa en sí tiene que ser un espacio de empoderamiento. Pero, al mismo tiempo, tenemos que trabajar la calle, ofrecer a la sociedad cauces para la transformación. Convertir Hernani en lugar feminista, sin guetos. Tomar el espacio público. Dinámico.*

## ZERTARAKO EMAKUMEEN ETXEA?

*ZERTARAKO atalean, beste hainbat ideia jasotzen dira. Hauen artean zerbait gehiago garatuko zenukete? Zerbait osatu? Zerbait gehitu? Nola uztartuko dugu garapen pertsonala eta kolektiboa? (Kontrajarriak dira, elkar osa daitezke?)*

*De entre las ideas y aportaciones que se recogen en el apartado "PARA QUÉ", ¿Añadiríais algo? ¿Corregiríais algo? ¿Complementaríais algo? ¿Cómo hacer complementarias las dimensiones personal/colectiva? (¿Son complementarias? ¿Se contradicen?)*

### 1. TALDEA

- Jabetze "emozionalaz" hitz egin da. Edo behintzat emozioei espazioa ematea, aintzat hartzea... / *Se habla de empoderamiento "emocional". O por lo menos, dar lugar a las emociones, tenerlas en cuenta...*
- Giroa aproposa izatea horri arreta jartzeko. Etxe horrek giro hori izan behar du, gure burua zaindiko dugun lekua, elkar zaindiko duguna / *Que el ambiente sea adecuado para poder ponerle atención. Esa casa tiene que posibilitar ese ambiente, un lugar donde cuidemos de nosotras mismas.*
- Garapen pertsonala eta kolektiboa uztartu behar direla uste da. kolektiboa pertsonala gabe ezin dela eman uste da / *Se cree que es necesario compaginar el desarrollo personal con el colectivo. Es imposible el desarrollo colectivo sin el personal.*
- Gizonen "ahalduntzea"? Beren rola Emakumeen ahalduntzea, nola izan euskarri, nola ikasi hor egoten protagonismoa akaparatu gabe. Gaitasun hau ez da botenprontoan garatzen, eta oharmen handia eskatzen du, prozesu luze eta konplexua. Pertsona osoak, integralak, dira helburu. Lanketa berezituak / *¿"Empoderamiento" de hombres? Su rol sería dentro del empoderamiento de mujeres, cómo ser acompañante, como estar sin acaparar esos espacios. Esta habilidad no se consigue de la noche a la mañana, es un proceso largo y complejo. El objetivo es llegar a ser personas integrales. Trabajos separados.*

### 2. TALDEA

- Como complementar las dimensiones personal / colectivo?
  1. Realizar una reflexión más profunda sobre el enfoque de qué es lo colectivo y qué es lo personal.
  2. Que el desarrollo personal tenga una incidencia / traducción colectivo.
  3. Reflexionar sobre las formaciones que se ofrecen desde Consejo de Igualdad
  4. Actividades repetitivas se realizan y es necesario pensar el enfoque político / social de las acciones que hacemos.
  5. Ene I para qué, añadimos: para la convivencia y su gestión.

### 3. TALDEA

- Ganar espacio público. Hacer visibles al as mujeres y aportaciones femeninas. Adibidez:
  - o Protokolo herrikoia sagardotegi garairako / *Protocolo ciudadano para la temporada sidrería*
  - o Protokoloa polideportiboan / *Protocolo ene I polideportivo*
  - o "presio soziala" / *"Presión social"*
- Eragiteko tresna / *Recursos/herramientas para influenciar*
- Son complementarias individual / colectivo

### 4. TALDEA

- Lehenengo prozesu indibiduala egin behar da, gero kolektiborako / *En primer lugar, habrá que realizar un proceso individual, para luego dar el colectivo.*
- 2 direcciones: elkarrelikatzen, retroalimentandose.
  - o Colectivo – individual
  - o Individual – colectivo
- KONPLEMENTARIOAK DIRA! / *SON COMPLEMENTARIAS!*
- Egiten diren ekimenak, ekintzak... helburu jakin batekin (ahalduntzea begira) izan behar dute! / *Las actividades que se realicen tienen que tener objetivos concretos (dirigidos al empoderamiento)*
- "Indibidualidadeak" eta "kolektiboak"

*Kontuan eduki behar da indibidualismoaren bilakaera historikoa, horrek gaur egungo identitateen inguruan eta bakoitzaren indibidualismo mailaren inguruan duen eraginaz ohartarazten lagunduko digu. / Hay que tener en cuenta la evolución histórica del individualismo, nos ayudará a entender factores sobre las identidades actuales.*

## EMAKUMEEN ETXEAREN IZENA

*Izena: Zein ezaugarri izan behar ditu izenak? Zer transmititu nahi dugu? Proposamen zehatzik badago?*

*En cuanto al nombre, ¿Qué características-elementos-terminos debe tener? ¿Qué deseamos transmitir? PROPUESTAS:*

### 1. TALDEA

- JOXEPA MATEA ZUBELDIA
- AMARAUNA
- Zein ezaugarri? / *¿Qué características?*
  - o Izen propioa, nortasuna emango diona / *Nombre propio, que le de identidad*
  - o "etxe feminista", "emakumeen etxea" (etxe hitza ez) abizen moduan. "Kulturarteko elkargune / gunee / plaza / espazio feminista"
  - o Pertsona bati dagokiona izan gabe, kolektiboa / *Sin que sea un nombre propio, colectivo*
  - o Kolektiboa + publikoa = plaza.

### 2. TALDEA

- Estaría bien un nombre propio
  - o Alguien de Hernani
  - o Feminista
- Casa de la igualdad: el término recoge otro tipo de discriminaciones, que recogerá también nuestra casa.

### 3. TALDEA

- Hay dudas sobre si se debe utilizar la palabra "feminista" o no por miedo a exclusión.
- El concepto de las casas: hay debate sobre el concepto casa por el simbolismo del espacio privado
- Propuestas / ideas:
  - o Plaza Feminista
  - o Casa Feminista
  - o Casa \_\_\_\_\_
  - o Hegal Etxea / Casa con Alas
  - o Mujeres con casa
  - o Casa con alma
  - o Etxe irekia
  - o Jantzienea

### 4. TALDEA

- Emakume hitza azaltzea, bai? Ez? / *Que aparezca el término mujer, ¿sí? ¿no?*
- Feminista?
- Morea? / *¿Morado?*
- Roxa? Rosa Louise Parks-i erreferentzia egiteko. / *¿Rosa? Haciendo referencia a Rosa Louise Parks*
- Alberginia?
- Buganbila?
- Etxea? Espazio itxia da. Espazio irekia izan behar du: / *¿Casa? Es un espacio cerrado, necesitamos un nombre de algo abierto.*
  - o Plaza
  - o Kalea / Calle
  - o Parkea
  - o Galaxia
- Joxepa (Joxepa Matea Zubeldia)
- Jazmina

## **BESTE EKARPENAK OTRAS APORTACIONES**

Incidir en que sería interesante tratar temas de autoayuda psicológica, autoafirmación personal, desarrollo y autoestima personal, a la vez que consultas psicología familiar, escuela de madres y padres, cursos de liderazgo

Espazio goxoa izan behar du (erdiko patioan): / *Tiene que ser un espacio agradable*

- Kafea, tea, jateko zerbeit... / *Café, té, algo de comer...*
- Loreak / *Flores*
- Koadroak / *Cuadros*
- Erakusketak / *Exposiciones*
- "Sofak" / *Sofás*
- Erabilera anitzeko altzariak gurpilekin / *moviliario para diferentes utilidades*
- Espazio irekia / *Espacio abierto*

Irisgarritasun baldintzak beteko dituenak: igogailua, komunak, ateak / *Cumplir las normas de accesibilidad: ascensor, baños, puertas...*



## 4. AMAIERA ETA HURRENGO URRATSAK / CIERRE Y PRÓXIMOS PASOS

---

Saioa amaitzeko balorazioa burutu da dinamika baten bidez, hiru aldagai nagusi baloratzeko eskatua:

- Saioaren metodologia
- Landutako edukiak
- Saioaren giroa, nola sentitu naiz?

Balorazioaren ostean, egindako lanagatik eskerrak emanez, saioa amaitutzat eman da, arratsaldeko 20:15ean.



*Se ha realizado una dinámica de valoración para finalizar la reunión, teniendo en cuenta tres criterios:*

- *Metodología de la reunión*
- *Contenidos trabajados*
- *Ambiente de la reunión*

*Al finalizar la valoración, se ha agradecido el trabajo realizado en la reunión, y se ha dado por finalizada la reunión a las 20:15.*